



Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 6a

Deseskalatze-prozesua

Espainiako Gobernuak apirilaren 28an onartutako Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren deseskalatze-prozesua osatzen duten faseak kontuan hartuta, 1. faseak, ziur asko datorren astelehenean, maiatzaren 11n, hasiko denak, aurreikusten du kulturazentrotok ateak irekitzeko aukera, edukiera %30era mugatuta eta % 50era 2. fasean.

Nahi ez diren pilaketak eta kudeatzeko zailak diren egoerak saihesteko, eta hainbat batzorde eta federazio islamiarren gomendioen edukia kontuan hartuta, ADOS Aholku Batzordeak uste du egokiena 3. fasera arte itzarotea dela meskitak pixkanaka irekitzeko.

Gomendio hori ulertzeko, honako faktore hauek baloratu behar dira:

-COVID-19ren krisiak segurtasun-tartea (1-2 metro) mantentzera eta kudeatzera behartzen du, eta baldintza higieniko egokiak bermatu behar ditu: erabilera pertsonaleko alfonbrak, eskularruak, maskarak, gel hidroalkoholkoa, errezoen arteko garbiketa, abluzioa etxean bertan, eta abar. Hori oso zaila izan daiteke, otoitza egiteko baldintzak kontuan hartuta.

-Edukiera 1/3ra murrizteak sarrera kontrolatzera eta sarrera mugatzera behartuko ditu agintariak, edukiera hori lortzen denean. Horrek gatatzak sor ditzake atean sartu ezin direnen artean.

-Ohiko pertsonen kupurua handitu egingo da, Ramadana ospatzeaz gain, beste fededun bisitagatik, beren meskitak ireki ez dituztelako.

-Fededun batzuk, COVID-19 sintomekin, meskitara Allahri laguntza eskatzera joateko arriskua dago.

-Azkenik, gogoratu meskitaren erabilera kultu-jardueretara mugatzen dela, eta ezin dela bazkaririk eman edo bestelako jarduerarik antolatu.

Gogoeta horiek arretaz baloratzea gomendatzen da, nahi ez diren ondorioak ekar ditzaketan erabakiak hartu aurretik.